

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Sestaoko Udala****Arduraldi eskusi-boaren araubidean kargu publikoak eta ordainsarien zenbatekoak zehazten dituen Alkatetzaren Proposamena.**

Udalaren Osoko Ezoiko Bilkurari, 2019ko uztailaren 12an egindako Ezohiko Bilkuran, besteak beste honako erabaki hau hartu zuela, eta haren zati bat jasota honelaxe dio:

12. zenbakia.—Arduraldi eskusi-boaren araubidean kargu publikoak eta ordainsarien zenbatekoak zehazten dituen alkatetzaren proposamena.

«...

1.a. Sestaoko Udalean beren lana dedikazio osoko jardunean burutuko duten kargu publikoak zehaztea, baita horien ordainsarien zenbatekoa ere:

- Alkatetza: 63.000 euro urtean.
- Hirigintza, Etxebizitza, Industria, Zerbitzu, Ingurumen, Mugikortasun eta Aparkalekuetako ordezkaria: 40.500 euro urtean.
- Kontratazio, Modernizazio, Giza Baliabide eta Barne Araubideko ordezkaria: 40.500 euro urtean.
- Kultura, Herritarren Partaidetza, Gobernu Ireki, Herritarren Segurtasun eta Herritartasuneko ordezkaria: 40.500 euro urtean.
- Obretako eta Eraikinen eta Gune Publikoen Mantentze-lanetako ordezkaria: 40.500 euro urtean.
- Gizarte Ekintza, Adineko Pertsona, Berdintasun, Aniztasun eta Osasun arloko ordezkaria: 40.500 euro urtean.

3.a. Prestakuntza, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Kiroletako ordezkariak bere lana dedikazio partzialeko araubidean egingo du, lanaldiaren %60ko dedikazioarekin, eta urtean 24.300 euroko ordainsaria jasoko du.

4.a. Ordainsari horiek dedikazio eskusiboko araubidean jasotzea bateraezina da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 75.1. artikuluan adierazitako kasuekin.

5.a. Aurreko apartatuetan (1 eta 3) ezarri diren ordainsariek eta Sestaoko udaleko langile publikoen ordainsariek igoera berbera izango dute.

6.a. Erabaki honek ondorioak sortuko ditu Alkatetzaren 4622/2019 zenbakiko Dekretua sinatu eta biharamunean. Dekretu horren bidez Alkatetza honek eskuordetzan emandako eskumenen araubide orokorra zehazten da eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39. artikuluko 1. eta 3 apartatuen arabera eskuordetza horiek euren gain hartuko dituzten zinegotzi liberatuak izendatzen dira.

7.a. Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko Iragarki Oholean argitaratzea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 75.4. artikuluan xedatutakoaren arabera.»

Sestaon, 2019ko irailaren 1ean.—Alkatea, Josu Bergara López